

ONGIZATE EMOZIONALAREN SUSTAPENA ETA ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO TOKIKO PLANA 2026-2029

Aretxabaleta-Eskoriatza

AURKIBIDEA

Ongizate Emozionalaren Sustapena eta Adikzioen Prebentzioa



01	Sarrera	1
02	Planaren helburuak	2
03	Oinarri teorikoa	2
04	Planaren testuingurua	4
	4.2. Esparru arauemailea	
	4.2 Aretxabaleta eta Eskoriatzako errealitatea: Osasunaren sustapena eta prebentzioari buruzko Diagnostikoa	
	4.3 Esku-hartzeko lehentasunezko espazioak eta kolektiboak	
05	Planaren helburuak, ardatzak eta ekintzak	17
	1.go HELBURUA: Portaera osasungarriak sustatuko dituzten eta adikzioea sortzen duten substantzien kontsumoa eta jokabideak desnormalizatzen lagunduko duten inguruneak aktibatzea.	
	2. HELBURUA: Osasuna eta prebentzioa sustatzeko programak indartzea eta hobetzea.	
	3. HELBURUA: Gizarteratzeko tratamendu, asistentzia eta laguntza-zerbitzuak indartzea eta hobetzea.	
	4. HELBURUA: Adikzioen arloko ezagutza eta berrikuntza garatzea eta zabaltzea.	
	5. HELBURUA: Sektoreen arteko ekintza eraginkorragoa finkatzea.	
06	Planaren jarraipena	32

1. Sarrera

Gaur egungo adikzioen fenomenoak gero eta dimentsio konplexuagoa hartzen ari da. Substantzia bidezko adikzioez gain, gero eta presentzia handiagoa dute adikzioa eragiteko potentziala duten jokabideek ere, hala nola apustu-jokoek, teknologia digitalen erabilera problematikoak edo kontsumo konpultsiboak. Fenomeno horiek osasunari ez ezik, harremanei, bizikidetzari eta gizarte-kohesioari ere eragiten diete. Horregatik, ezinbestekoa da ikuspegi integrala eta komunitatearen parte-hartzea sustatzen duten ekimenak garatzea.

Aretxabaleta-Eskoriatzako Ongizate Emozionalaren Sustapena eta Adikzioen Prebentziorako Udal Plana (2026-2029)

Plan hau osasunaren sustapena eta adikzioen prebentziorako tresna estrategiko bat da, bertako errealitatea kontuan hartzen duena eta komunitatearen beharrian zehatzei erantzun nahi diona. Ez da kanpotik inposatutako ekintza-multzo bat, baizik eta udalerriko eragile eta herritarren artean eraikitako proposamena, parte-hartzean eta lankidetzan oinarritua. Bere helburua prebentzioa sustatzeaz gain, osasunaren ikuspegitik abiatuta, ingurune osasungarriagoak sortzea eta ahultasun egoerak murriztea da.

Plan honek adikzioen ikuspegi integrala hartzen du, bai substantziazkoak bai jokabide adikzioak barne hartuz. Era berean, esku-hartze maila desberdinak jasotzen ditu (unibertsala eta selektiboa), eta hainbat esparrutan (eskola, familia, komunitatea, aisialdia...) garatzen da, **Euskadiko Adikzioen VIII. Planaren ildo estrategikoekin bat eginez.**

Tresna Dinamiko eta Malgua

Plana tresna dinamiko eta malgua da, unean uneko egoera sozialera egokitzeko gaitasuna duena. Etengabeko ebaluazioaren bidez eguneratzen da, eta udalerrietan garatzen diren zerbitzu eta ekimenen arteko koherentzia eta eraginkortasuna bultzatzen du. Horrela, baliabideak hobeto aprobetxatuz eta ekimenak bateratuz, komunitate osoaren ongizatea eta osasuna indartzea bilatzen du.

Udal plana, beraz, ez da helburu bat bere baitan, baizik eta bide bat herritarren bizikaltasuna hobetzeko, prebentzioa erdigunean jarritz eta elkarrekin eraikitako komunitate arduratsuago baterantz aurrera eginez.

Konpromiso Sendoa

Hortaz, Aretxabaleta-Eskoriatzako Ongizate Emozionalaren Sustapena eta Adikzioen Prebentziorako Udal Plana 2026-2029 udalerrian adikzioen prebentzio, detekzio eta esku-hartzerako jarraibideak ezartzen dituen dokumentu estrategikoa da. Datozen lau urteetarako norabidea markatzen du, eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalen konpromiso sendoa islatzen du adikzioen aurkako jarduera eraginkorrak sustatzeko eta koordinatzeko.

2. Planaren helburuak

Planaren helburu nagusiak honako hauek dira:

1. **Aretxabaleta-Eskoriatzako biztanleen osasuna sustatzea eta kontzientziazioa:** Herritarrak drogaren kontsumoak eta bestelako jokabide adiktiboek sor ditzaketen arriskuen aurrean kontzientziatzea.
2. **Ikuspegi zabala eta integrala eskaintzea:** Substantzien kontsumoarekin lotutako adikzioen (legezkoak eta legez kanpokoak) ez ezik, substantziarik gabeko edo jokabidezko adikzioen aurrean ere jarduteko.
3. **Osasunean eragina duten faktoreetan esku hartzea:** Norbanakoaren ezaugarrietan, harremanetan eta egitura sozialetan eragina duten faktore desberdinetan esku hartzea.
4. **Esku-hartzeak hainbat eremutan garatzea:** Modu koordinatuan garatzea eskolan, familian, auzo eta komunitatean zein aisialdi eta jai-testuinguruetan.
5. **Bizitzaren etapa ezberdinak kontuan hartzea:** Arreta berezia jarritz haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan, prebentzio maila desberdinak uztartuz.

Plan hau oinarri hauetan garatzen da:

- **Ebidentzian oinarritutako jarduerak eta genero-ikuspegia:** Ebidentzian oinarritutako jarduerak aplikatuz eta genero-ikuspegia barneratuz.
- **Ekitatea eta desberdintasun sozial eta ekonomikoak:** Desberdintasun sozial eta ekonomikoak kontuan hartuz, ekitatearen alde eginez.
- **Komunitatearen parte-hartzea eta sare-lana:** Komunitatearen parte-hartzea sustatuz eta sare-lanaren bidez eraginkortasuna handituz.
- **Esku-hartzeen ebaluazioa:** Esku-hartzeak modu sistematikoan ebaluatuz, emaitzak hobetzeko eta udalerriko adikzioen inguruko ezagutza sendotzeko.

3. Oinarri teorikoa

Ongizate emozionalaren sustapena eta adikzioen prebentziorako tokiko plan bat garatzeko, ezinbestekoa da fenomenoaren konplexutasuna eta bilakaera ulertzea, bai eta esku-hartze eraginkor bat diseinatzeko oinarri kontzeptual sendoak finkatzea ere. Plan hau ikuspegi teoriko integratzaile batean oinarritzen da, adikzioak ulertzeko eta horien prebentzioa bideratzeko funtsezko diren hainbat paradigma uztartuz.

► Osasunaren sustapenaren ikuspegia:

Osasunaren sustapena ez da soilik gaixotasunen prebentziora mugatzen, baizik eta pertsonen bizi-baldintzak eta aukerak hobetzea du xede, ongizate orokorrera bideratuz (WHO, 1986). Ottawa Gutunean (1986) ezarritako printzipioen arabera, osasunaren sustapena ekintza multidimentsionala da, eta honako esparru hauek hartzen ditu: politika publiko osasungarriak garatzea, ingurune osasungarriak sortzea, komunitatearen jarduteko gaitasuna indartzea, trebetasun pertsonalak garatzea, eta osasun-zerbitzuetan eraldaketa sustatzea.

► **Ikuspegi biopsikosoziala:**

Adikzioen inguruko ikuspegi tradizionalak faktore biologikoak lehenetsi badituzte ere, ikuspegi biopsikosozialak kontuan hartzen du adikzioa faktore anitzen elkarrekintzaren emaitza dela (Engel, 1977). Kontsumoa eta menpekotasuna ulertzeko, beharrezkoa da dimentsio biologikoak (neurobiologia, herentzia genetikoa), psikologikoak (pertsonek estresari nola aurre egiten dioten, autoestimua, traumen presentzia) eta sozialak (familia-egitura, ingurune soziala, kultura, bazterkeria) integratzea.

► **Arrisku- eta babes-faktoreen eredua:**

Prebentzioaren alorrean errotuta dagoen eredu honek (Hawkins et al., 1992) adikzioarekin lotutako arrisku-faktoreak identifikatu eta horien eragina murriztera bideratzen du interbentzioa. Aldi berean, babes-faktoreen sustapena lehenesten da. Arrisku-faktoreen artean aurki daitezke substantzien eskuragarritasuna, familia-gatazkak, eskola-porrota edo lagunarte kontsumitzaileak besteak besta. Babes-faktore gisa, berriz, ingurune familiar egonkorra, komunikazio egokia, eskola-lotura positiboa eta aisialdi osasungarria nabarmentzen dira.

► **Komunitatearen garapenerako ikuspegia:**

Tokiko esku-hartzeek komunitatearen ezagutza eta partaidetza aktiboa eskatzen dute. Komunitatea ez da soilik interbentzioaren hartzailea, baizik eta prebentzio-ekintzaren parte-hartzaile aktiboa izan behar du (Wallerstein, 2006). Tokiko planek eragile ezberdinen arteko koordinazioa bilatu behar dute: hezkuntza-eremua, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, aisialdiko elkarteak eta herritarrak oro har. Horrek sare-lana eta ikuspegi intersektoriala eskatzen du.

► **Generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegia:**

Adikzioei aurre egiteko genero-ikuspegia txertatzea funtsezkoa da, emakumeek eta gizonen esperientzia ezberdinak bizitzen baitituzte kontsumoari eta laguntza-zerbitzuei dagokienez (Greaves, 1996). Emakumeek estigmatizazio handiagoa jasan ohi dute, eta laguntza eskuratzea zailagoa izan daiteke haientzat. Era berean, jatorria, klase soziala edo bestelako diskriminazioak kontuan hartzen dituen ikuspegi interseksionalak aukera ematen du interbentzioak egokiago egokitzeko kolektibo baztertuen beharretara.

► **Heziketa emozionalaren eta gaitasun pertsonalen ikuspegia:**

Adikzioen prebentzioa ez da informazio transmisio hutsa. Beharrezkoa da haur, nerabe eta gazteengan gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea, hala nola norberaren emozioen kudeaketa, autoestimua, komunikazio asertiboa edo talde-presioari aurre egiteko estrategiak (Botvin & Griffin, 2004). Heziketa emozionalean oinarritutako programen helburua da erresilientzia eraikitzea eta pertsonak kontsumotik libre bizitzeko gaitzea.

4. Planaren testuingurua

4.1 Esparru Arauemailea

- **Erreferentziazko Lege eta Arau-esparrua:**

12/2008 Legeak, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, helburu du “Euskal Autonomia erkidegoko gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak izateko eskubidea sustatu eta bermatu, izaera unibertsalaren Gizarte Zerbitzuzen Euskal Sistemaren erregulazioa eta antolaketa bidez”, ez du prebentziorik izendatzen bere objektuaren funtsezko hitz gisa eta hala ere, prebentzioari buruzko erreferentzia batzuk modu generikoan egiten ditu eta gaur egun garapen eta zehazketa zain, ikuspegi komunitario horretan sar daitekeena eta hurbiltasunekoa, arrazoi adierazpenean aipatutako arreta eredu gisa.

4/2015 Lege Organikoaren, martxoaren 30koa, herritarren segurtasuna babestekoa, V.kapitulua, zehapen-araubidea ezartzen duenak, berritasun garrantzitsuak sartzen ditu 1/1992 Lege Organikoaren, Otsailaren 21koa, inguruan *“Atingabeek droga toxikoen, estupefazianteen edo substantzia psikotropikoen kontsumo edo eduki ilegalaren inguruan egin dituzten urraketengatik ezarritako isunak etetea posible izango da betiere, urratzaileek eta haien ordezkari legalek eskatuta, eta baldin eta horiek behar izanez gero, tratamendu edo errekupeazioan parte hartzera edo berriro hezteko jardueretan parte hartzera onartzen badute. Urratzaileek tratamendua, errekupeazioa edo berriro hezteko jarduerak uzten badituzte, isun ekonomikoa betetzeko prozedura jarraituko da”*.

1/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, osasunaren hezkuntza proposatzen du oinarritzko estrategia bezala osasunaren sustapenerako eta adikzioen eta drogomenpekotasunen prebentziorako, osasun publikoaren ikuspegetik ohitura osasuntsuak eta osasunaren kultura bat bizitza autonomo batetara zuzentzen dena.

2/2024 Legea, Haur eta nerabeena, 111-115 artikuluek osatutako atalak haurren eta nerabeen osasun mentala zaintzeko eta jokabide-arazoak eta adikzioak prebenitzeko neurriak ezartzen ditu. Sentsibilizazioaren, osasun-laguntza integralaren eta hezkuntza-laguntza espezializatuaren aldeko kanpainak egiten dira.

- **Udal eskumen arau esparrua:**

1/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa,

Eremu honetan, udalerriei emandako eskurantzak berariaz ezartzen ditu:

9. artikulua. Osasunerako hezkuntza	1. Adikzioen eta droga-mendekotasunen arreta integralari zuzendutako jarduera eta neurrietan, osasun publikoaren ikuspuntutik, osasunerako hezkuntza oinarrizko estrategia da, bai osasunaren sustapenean, bai adikzioen eta droga-mendekotasunen prebentzioan. 2. Osasunerako hezkuntzak erantzukizun pertsonala eta soziala sustatuko ditu, horretarako ezaguera, jarrera eta ohitura osasuntsuak jasoz; gainera, lagunduko du garatzen osasun indibiduala eta kolektiboa hobetzera eramango duten balio, jarrera eta trebetasun pertsonalak, gaitasuna emanaz norberaren eta besteen osasuna zaintzeko egokienak diren erabakiak hartzeko. 3. Aldi berean, osasunerako hezkuntzaren helburua izango da saihestea hala adikzioak, bai drogekikoak eta adikzioa eragin dezaketen bestelako substantziekikoak bai jokabide-adikzioak, kontsumoan zein portaeretan, nola aurrekoen aitzindari diren arrisku-faktoreak. 4. Osasunerako hezkuntzan sartuko dira beren jarduera-eremuarengatik estrategia hau zabaltzen lagundu dezaketen pertsona eta talde guztiak; bereziki, ahultasun egoera berezian dauden pertsona eta kolektiboetara zabaltzen lagundu dezaketenak. 5. Osasunerako hezkuntza, estrategia den aldetik, erabilgarri dituen metodologia guztiez baliatuko da, batez ere: osasun-alorreko profesionalek duten ezagutzaren kudeaketaz; hezkuntza indibidualizatu eta kolektiboaz; komunikabide masiboez eta teknologia digitalez eta haien aplikazio berriez, horrek gizartearen sektore zabaletara hurbiltzeko aukera ematen baitu.
13. artikulua. Adikzioen prebentzioa	1. Administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen eremuan eta bereziki osasun-sisteman, gizarte-zerbitzuetan eta hezkuntza-arloan, prebentzio-neurriak hartuko dituzte, biztanleria sentsibilizatzea eta informatzera bideratuak. 2. Prebentziozko esku-hartzeak indartuko dituzte, bizitzako baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragina duten bazterkeriako faktore pertsonal, familiar edo sozialak gainditzeko, eta adikzioen eragina jasan duten pertsonak beren komunitateko ingurunean modu normalizatuan txertatzea errazteko. 3. Osasun publikoko eta lehen mailako arretako zerbitzuek prebentzioz jardungo dute, komunitate-eremuko eragileekin koordinatuta, bizitza-ohitura osasungarriak sustatzeko estrategien eta programen bidez, bai eta informazio-ekintzak, detekzio goiztiarreko kanpainak eta ohitura desegoki edo gehiegizkoen aldaketa sustatzeko ekintzak ere.
15. artikulua. Prebentzioa familiaren eremua	1. Familia funtsezko elementu bat baita seme-alaben heziketan eta prestakuntzan eta adikzioak ekiditeko estrategien, balioen, trebetasunen eta gaitasunen transmisioan, interbentzio eta programa batzuk erabiliko dira gurasoak edo tutoreak sentsibilizatze aldera, ohar daitezen zer-nolako garrantzia duen beren

	rolak haurtzaroaren eta nerabezaroaren garaian babes-faktoreak sustatzeko orduan. 2. Prebentziozko interbentzioen esparruan, familia bereziki babestuko da, honetarako: - Familiaren heziketa- eta kudeaketa-gaitasunak hobetzeko. - Familia-guneak adikzioen eraginari eta kontsumoari aurre egiteko duen erresistentzia indartzeko. - Arrisku-faktoreak gutxitzeko eta seme-alabengan drogen kontsumoari aurre egiteko babes-faktoreak ugaritzeko. Horrela, familiak prebentzio eragile gisa duen zeregina sendotu nahi da, bereziki adingabeak eta gazteak dituzten familiena...
16. artikulua. Prebentzioa komunitate eremuan	- Biztanleriaren edo interes handiena duten taldeen ganean eragin handiena duten baliabideak eta pertsonak hartzen ditu barne, hala nola hezkuntza-zentroak, gizarte- eta kultura-zerbitzuak, gazte-, kultura-, kirol- eta boluntariora-elkarteak, profesionalen kolektiboak eta lan-zentroak. - Udalek eta mankomunitateek garatuko dute, nagusiki, beren eskumenen arabera, herritarrei eta komunitateei eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.
17. artikulua. Prebentzioa hezkuntza eremuan	1. Eskola-eremua funtsezkoa da pertsonak, haurtzarotik eta gaztarotik, bere osasun eta ongizateari lotutako gaitasun egokiak garatu ditzan, era eraikitzailean eta norberarekin eta besteekiko modu begirunetsuan. Hori dela eta, hezkuntza-esparrua funtsezko zutabea da prebentziozko jardueretan. 2. Horregatik, honako prebentzio-neurri hauek hartuko dira, ez une zehatz batean egitekoak bakarrik, baizik eta ikasturte osoan zehar batez ere. a) Hezkuntza komunitate desberdinetako sektoreetara zuzendutako neurriak. a.1. Adin guztietako ikasleak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, arlo hauetan: ausazko jokoak, telebistaren eta teknologia digitalen erabilera (Internet, gizarte-sareak, bideojokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak. Baita adikzio-jokabideak eragin ditzaketen portaera neurrigabeei loturiko arriskuei buruz ere. a.2. (...) Oro har, lehentasuna emango zaie ikasleengan honako arlo hauek sustatzen dituzten baliabideei: autoezagutza, autoestimua, emozioen erabilera eta oldarkortasunaren kontrola, norberaren autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna, eta nork bere burua onartzea. a.3. Gurasoei edo tutoreei eta irakasleei eta irakasle ez diren langileei zuzendutako prestakuntza-programak garatzea. Horien helburua izango da ikasleen artean aurreko paragrafoan jasotako alderdiak sustatzea (...).

18. artikulua. Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabeen eta gazteen eremuan	1. Kontsumo problematikoak eta adikzioak eragin ditzaketen arrisku handiko portaera neurrigabeak dituzten adingabeei eta gazteei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak haien egoerara egokiturako prebentzio- eta interbentzio-programak garatuko ditu, non parte hartu ahal izango duten prebentzioan espezializatutako entitateek edo bitartekoek eta bitarteko sanitario eta sozialek, bai eta adingabearen familiak ere. 2. Ahal dela, esku-hartzeak adingabearen familiarekin egingo dira, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuekin koordinatuko dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27. artikuluekin bat.
22. artikulua. Prebentzioa kirol, aisia eta denbora librearen eremuan	1. Osasun, gazteria, kirol, kultura eta hezkuntza arloetan eskumena duten euskal administrazio publikoek denbora librearen erabilerarako eredu integralak sustatuko dituzte, substantzien kontsumoari, jokabide adiktiboek eta adikzio-portaerak sor ditzaketen arrisku edo gehiegizko jokabideei alternatibak eskaintzeko, bereziki gazteen eta nerabeen artean. 2. Horretarako, honako jarduera hauek (besteak beste) gauzatuko dituzte: dibertsioa, aisialdia eta denbora libre modu osasungarri eta anitzean erabiltzea sustatzea; teknologia digitalen eta haien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea, dibertsio, aisialdi eta denbora librearen testuinguruan ulertuta. 3. Gazteen inplikazio eta elkarlana bultzatzea, aisialdi, kirol edo kultura programetan beraien parte-hartzea sustatuz, batez ere, zaurgarriak diren norbanako edo gizataldeen kasuan.
68. artikulua. Udalen eskumena	1.- Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bere lurralde eremuan: a) Adikzioen udal-plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduerak egin, garatu eta burutzea, lege honetan, Euskadiko Adikzioen Planean eta, hala badagokio, dagokion foru-planean xedatutakoari jarraikiz. b) Lurralde eremu bakoitzean, adikzioen arloko aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendua arautzea. c) Dagokien lurralde eremuan, adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak kudeatzea. d) Lege honetan aurreikusitako kontrol neurriak betetzen diren ikuskatzea eta behatzea. 2.-Emandako zeregin hauek burutzeko, udalek beren kabuz edo mankomunitateetan elkartuta jardun dezakete.

69. artikulua. **Aurrekontu-konpromisoak**

Euskal Autonomia Erkidegoaren, foru aldundien eta udalen aurrekontu orokorrek lege honetan ezarritako jarduerak gauzatzeko beharrezko kredituak aurreikusi beharko dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan, aurrekontu-erabilgarritasunen, onartutako programen eta xede horrekin izenpetutako hitzarmenen arabera.

• Beste plan batzuekin lerrokatzea, estrategiak eta programak:

Adikzioen arloan inplikaturako eragile eta erakundeen aniztasunak eta heterogeneotasunak plan eta estrategia ugari garatzea ekarri du, maila europarretik tokiko mailaraino. Horiek guztiak dira Aretxabaleta-Eskoriatzako Adikzioen Prebentziorako Udal Plan berriaren oinarri estrategikoak.

► Euskadiko Gazteentzako V. Plana (2022-2026)

Plan honek ekintza eta neurri zehatzak jasotzen ditu, gazteen aukera-berdintasuna errealitate bihurtzeko eta 12 eta 30 urte bitarteko gazteek beren bizitza modu autonomo eta askatuan garatzeko gaitasuna areagotzeko eta indartzeko, politika publikoek duten zeregina handituz.

Euskal Gazteria Legea hiru ardatzen inguruan egituratzen da:

- Gazteen heldutasun-prozesua eta garapena laguntzea (Gazteria sustatzea: Gazteria Sistemaren definizioa eta sendotzea).
- Emantzipazioa eta helduarorako trantsizioa bultzatzea (Gazteen emantzipazioa).
- Gizartean parte hartzeko aukerak sustatzea (Gazteen partaidetza).

Gazte Plan honetan jasotzen diren etorkizuneko erronken artean nabarmentzekoak dira:

- Osasun mental positiboa sustatzea. Gazteria da COVID-19aren pandemiak gehien eragin dien kolektiboetako bat ikuspegi psikologikotik. Horregatik, hiru norabidetan lan egin behar da: osasun mental positiboa sustatzea, jokabide osasungarriak eta elikadura-ohitura egokiak bultzatzea, eta bizimodu fisikoki aktiboa sustatzea.
- Osasun fisikoa sustatzea, ohitura osasungarriak (elikadura, kirola...) hartuz.
- Aukera-berdintasunean, inklusioan eta aniztasunean aurrera egitea, arlo horietan hobekuntza-tarte handiak identifikatzen direlako.

► Euskadiko Adikzioen VIII. Plana (2023-2027)

Adikzioen VIII. Plana da Euskadin adikzioen eremuan (prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, arreta eta adikzioek eragindako pertsonen gizarteratzea) eta osasunaren sustapenean garatzen diren estrategiak eta esku-hartzeak planifikatzeko, antolatzeko eta koordinatzeko tresna nagusia.

Plan horretan jasotzen dira tokian tokiko programetan aplika daitezkeen jarduera-ildo nagusi batzuk, hala nola:

- Portaera osasungarriak sustatuko dituzten inguruneak aktibatzea eta substantzien kontsumoa nahiz jokabide adiktiboak desnormalizatzen lagunduko duten ekintzak bultzatzea, eskuragarritasuna eta eskaintza murrizteko neurri estrukturalak barne.
- Osasuna sustatzeko eta prebentziorako programak indartzea eta hobetzea, bizitza-zikloaren ikuspegitik, eta pertsonen kapital emozionala nahiz bizitzarako trebetasunak garatzea ardatz hartuta.
- Tratamendu, arreta eta gizarteratze-zerbitzuak sendotzea eta hobetzea, ekitate-ikuspegiarekin eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonengan arreta berezia jarritz.
- Adikzioen eremuan ezagutza eta berrikuntza garatzea eta hedatzea.
- Era berean, Euskadiko Adikzioen VII. Planak jasotzen dituen zenbait helburu gogora ekartzea garrantzitsua da, hala nola:
 - Osasuna sustatzeko eta adikzioen prebentzio unibertsalerako programak bultzatzea familia, hezkuntza, aisialdi eta komunitate eremuetan.
 - Substantzia adiktiboen kontsumo problematikoa edo jokabide-adikzioak dituzten nerabe eta gazteei zuzendutako programak bultzatzea.
 - Gazteentzako sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea.
 - Jai eta aisialdi testuinguruan prebentzio eta/edo arriskuen murrizketarako programak indartzea.
 - Lehentasunezko eremu batzuk ezartzen dira, eta, horien arabera, adikzioen prebentziorako programak Haur Osasunean eta Gaztearen eremuan eta ingurune eta jokabide osasungarrien sustapenean ezarritako ildoekin bat etorriko lirateke.

- Lehentasunezko 4. eremua: haur eta gazteen osasuna.

Euskadiko haur eta gazteen bizitza osasungarria izateko gaitasunak hobetzeko politikak garatzea du helburu, jokabide ez osasungarrien arriskuak minimizatzeko eta aukera sozial eta afektiboak hobetzeko, genero-ikuspegia kontuan hartuta. Ekintzen artean, honako hauek daude:

- Jokabide osasungarriari buruzko konpetentzia eta eduki kontzeptual, prozedurazko eta jarrerezkoak (elikadura osasungarria, jarduera fisikoa, alkohola, tabakoa eta adikzioak, harreman afektibo-sexualak...) hezkuntza-kurrikuluan txertatzea bultzatzea.
- Jarduera fisikoarekin eta elikadura osasungarriarekin lotutako beste ekintza batzuk garatzea.

- Lehentasunezko 5. eremua: ingurune eta jokabide osasungarriak.

Osasunaren sustapena, ingurune osasungarriak eta bizimodu osasungarriak bultzatzea du helburu, tokiko eta komunitateko mailan, sektore arteko lankidetzaren bidez. Ekintzen artean daude:

- Jokabide adiktiboak prebenitzea (alkohola, tabakoa, bestelako substantziak, substantziarik gabeko adikzioak).
- Tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzien kontsumoaren hasiera atzeratzea eta murriztea.

- Adikzioek eragindako kalteak minimizatzea.
- Adikzioen planetan aurreikusitako ildo estrategikoak eta ekintzak garatzea, bereziki substantzien kontsumoaren hasierako adina atzeratzera bideratutako neurriak, tabakoa, alkohola eta beste substantzia adiktibo batzuk eskuragarri egotearen murrizketa.
- Prebentzio unibertsaleko programak sendotzea, bai eta ahultasun-egoera berezian dauden kolektiboetako zuzendutakoak ere, eskolako, familiako eta komunitateko eremuak lehenetsiz.
- “Euskadi tabako-kearen gabeko lurraldea” estrategiaren garapenean aurrera egitea.
- Alkoholaren arrisku-kontsumoa murrizteko esku-hartzeak garatzea.
- Substantziarik gabeko adikzioen prebentzio- eta tratamendu-dimentsioak jorratzea.

► Euskadiko Osasun Plana 2030

Euskadi osasuntsuago baten lidergoa bilatzen du. Honako printzipio gidarietan oinarritzen da: bizitzaren ibilbidearen ikuspegia, osasuna politiketan guztietan, osasunaren arloko desberdintasun sozialak murriztea, genero-ikuspegia, osasun bakarra, osasunaren babesa mehatxu global berrien aurrean eta parte-hartze-ikuspegia. Lehengo helburu orokorra honakoa da: «Haurrak eta nerabeak beren osasun-potentzial osoarekin jaiotzea, haztea eta heldutasunera heltzea». Helburu horren garapenak helburu zehatzak dakartza, hala nola: «Haurren eta nerabeen garapen fisiko eta emozional osasuntsua sustatzen duten bizimodu-ohiturak bultzatzea» eta «Haien osasun fisiko eta emozionalerako arriskuak prebenitzea», baita lerro estrategiko zehatzak ere, adibidez:

- Hezkuntza-zentroen osasun sustatzaile rola indartzea, jarduera fisikoa, elikadura osasuntsua, estresa eta emozioen kudeaketa, aniztasunaren kudeaketa, laguntza afektiboa eta sexuala bultzatuz, eta arrisku-egoerak goiz detektatzeko prozesuak barne hartuz.
- Substantzien kontsumoa eta adikzio potentzialeko portaerak murrizteko programak definitu eta garatzea.

► Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia 2023-2028

Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategiaren ikuspegia da gizarte inklusiboa, solidarioa eta aniztasuna errespetatzen duena, non nahasmendu mentalak dituzten pertsonak beren bizi-proiektua bete-betean garatu ahal izango duten. Bigarren ardatz estrategikotzat osasun mentalaren sustapena eta nahasmendu mentalen prebentzioa bultzatzea da, eta bosgarren lerro estrategikotzat haurtzaroko eta nerabezaroako osasun mentala, adin horietan osasun mentaleko sintomak eta nahasmenduak prebenitzea eta goiz detektatzea lehentasun gisa hartuta.

► **Tabako Kerik Gabeko Euskadi Estrategia**

Helburutzat du, tabakoaren kontsumoaren prebalentzia murriztea, bai tabakismoaren prebentzioan eraginez, bai eta erretzen duten pertsonen uzteko laguntza eskainiz.

► **Osasun Publikoa eta Adikzioak sailean kokatutako “Adingabeak eta Alkohola” programa**

Helburu hauek ezartzen ditu: adingabeen alkohol-kontsumoaren aurrean erakundeek ekintza areagotzea, alkohola kontsumitzen hasten diren adingabeen kopurua murriztea, alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzea eta gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa murriztea, besteak beste. Administrazioek gauzatu beharreko ekintza-estrategiak ezartzen ditu.

► **88/2022 DEKRETUA, uztailaren 12koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatik ezarritako zehapenak ordeztari buruzko dekretua.**

Dekretu honek ezarritakoaren arabera, isunak bestelako neurri alternatiboekin ordezkatzeko udalak, horretarako eskumena duten agintariek. Dekretu honen helburu nagusiak dira: substantzien kontsumoarekin lotutako arrisku-jokabideak prebenitzea eta murriztea; arrisku-egoerak detektatu eta behar izanez gero beste baliabide soziosanitarioetara bideratzea; neurri alternatiboen bereizketa eta pertsonalizazioa, prebentzio eraginkorragoa lortzeko; isunak ordezkatzearen izaera hezitzaile eta konpontzailea lehenesten duen orientazioa; eta adingabeen jokabidearen eredu eta zuzenketa sustatzeko, gurasoen, tutoreen eta lege-zaintzaren arduradunen parte-hartzea bultzatzea, haiei beharrezko informazioa, laguntza eta babesa eskainiz. Dekretuak neurri alternatibo mota desberdinak proposatzen ditu, besteak beste komunitatearen onurarako lan edo jarduerak.

► **19/2022 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Euskadiko Autonomia Erkidegoko jokoaren arau orokorraren araudia eguneratzen duena.**

Euskadiko egoera sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta egindako aldaketa da. Araudi berri honen helburua hirukoitza da: Euskadin dagoen joko eskaintza gizarteak onar ditzakeen mugen barrura egokitzea, joko problematikoaren aurrean babesa bermatzea eta prebentzioa egitea, eta, adingabeak eta kolektibo ahulak babestea.

4.2 Aretxabaleta eta Eskoriatzako errealitatea: Osasunaren sustapena eta prebentzioari buruzko Diagnostikoa

2024an ongizate emozionala eta adikzioen inguruko diagnostikoa osatu zen bi herrietan modu parte hartzailean. Eragile askok, herriko gazteek eta herritarrek hartu zuten parte prozesuan. Diagnostikotik abiatuta, plangintza eraiki dute udalek eta eragileek elkarlanean. **Bertan jasotako erronkei erantzuteko lehentasunezko esku-hartze larroak ezarriko dira plan honetan.**

Hauek dira nerabe eta gazteen errealitatearen inguruan ateratako ondorio adierazgarrienak:

- **Bizipen emozionala**

Oro har, **nerabe eta gazte gehienak pozik edo oso pozik daude beren bizitzako hainbat alderdirekin.** Hala ere, **alde nabarmenak daude generoaren** eta ebaluatutako alderdiaren **arabera:**

Mutilak neskek baino pertzepzio positiboagoa dute beren gorputzari, irudiari eta pisuari buruz. Neskak alderdi emozionaletan eta sozialetan gogobetetasuna adierazten duten arren, ez dira hain positiboak beren gorputzari eta pisuari dagokienez. Familiarekiko harremana da gazteek ondoen baloratzen duten alderdietako bat. Lagunak eta ikaskideekiko harremana ere positiboki hautematen dira kasu gehienetan.

Azken hilabeteen, hauek izan ziren gazteen emoziorik ohikoenak:

- **Zoriontasuna: % 80k baino gehiagok maiz sentitzen du.**
- **Motibazioa % 65 eta lasaitasuna % 60.**

Emozio desatseguinei dagokienez, **estresa eta urduritasuna % 26 inguruk maiz sentitzen ditu.**

Hauek dira genero-desberdintasunak bizipen emozionalean: **Neskek estresa, urduritasuna, kezka eta tristura bezalako emozioak mutilak baino maizago sentitzen dituzte. Mutilek emozio positibo gehiago izateko joera dute,** hala nola zoriontasuna eta motibazioa, eta emozio desatseguinen intzidentzia txikiagoa erakusten dute.

• Sexualitatea

Sexualitatearen inguruan hitz egin nahi dutenean, gazte gehienek lagunengana jotzen dute. Familia laguntza-iturri gisa bigarren tokian dagoen arren, garrantzi txikiagoa du, bereziki mutilen artean. Ehuneko handi batek internet erabiltzen du informazioa bilatzeko baliabide gisa (% 13,75). **Gazteen % 43, 67k sexualitatearen inguruan duten informazioa nahikoa dela uste du** eta neskek gogobetetasun eza handiagoa erakusten dute.

Bestalde, gazte gehienek adierazi dute eroso sentitzen direla beren nahiak eta beharrak adierazten, neskak izanik gehien onartzen dutenak, % 80,1 eta ondoren mutilak % 60,6. Hala ere, % 16,7 ez da eroso sentitzen bere nahiak adierazten.

Presio soziala eta konformismoari dagokionez, gazteen zati handi batek besteen **nahien aurrean amore ematea onartzen du**, bai eta beren borondatearen aurka badoa ere; nesken % 50ak eta mutilen % 48,8k hala uste du. Halaber, **nesken % 34,1ak bestearen gozamena kontutan izan behar dela uste du eta gainontzeko nesken % 31,8ak kontrakoa uste du. Mutilek ordea, oso argi dute gozamena partekatua izan behar dela, % 81,5a** ados egonik baieztapen honekin.

• Denbora librea, teknologia digitalak, apustuak eta joko

Bat bateko mezularitza eta sare sozialak dira jarduera ohikoenak, gehiego handi batek egunero egiten dituenak. **Neskak dira nagusi sare sozialen erabileran eta mutilak bideo jokoetan nabarmentzen dira.** Telesailak edo pelikulak ikustea ere ohiko da, batez ere nesken artean.

Diruarekin lotutako apustu eta zorizko jokoetan, mutilek parte hartze handiagoa dute, bai on-line zein off-line eta erabiltzaileen kopuruaren gorakada handiena 18-19 urte bitarte ematen da. **Berdina gertatzen da pornografiarekin**, non, mutilak gailentzen diren.

Mutilak ere sarriago joaten dira ludoteka eta gaztelekuetara, mutilen parte-hartzea % 25koa da eta neskena % 7,01koa. 10-11 urterekin ludotekan parte-hartzea jeitsi egiten da, ez da horrela gertatzen gaztelekuarekin parte-hartze maila mantentzen bait da.

Jarduera fisikoari dagokionez, parte-hartze datuek adierazten dute **kirola astero praktikatzen dutenen proportzioa altua dela bi generoen artean**: mutilen % 86,48 eta nesken % 81,95. **Ekintza artistiko eta kulturalen esparruan**, aldiz, alde nabarmenagoa hautematen da: **nesken % 70,73k parte hartzen dute, mutilen % 54,30ekin** alderatuta.

Horrek generoaren araberako joera bereizgarriak agerian uzten ditu, jarduera fisikoetan parte-hartzea ia parekoa bada ere, esparru artistiko eta kulturalen nesken inplikazioa esanguraz handiagoa baita. azarpen- edo mehatxu-egoerak pairatu dituztela.

• Internetekiko erabilera arriskutsua

CIUS eskalaren arabera, emaitzek hau adierazten dute: nesken % **71,29k**, mutilen % **78,21k** eta ez-bitarren % **75,11k** erabilera problematikorako arrisku baxua adierazi dutela.

Bestetik, nesken % 28,71k, ez bitarrak ez diren pertsonen % 27,27k eta mutilen % 21,79k adierazten dute on-lineko jazarpen- edo mehatxu-egoerak pairatu dituztela.

• Mugikorraren erabilera LH-ko 3. zikloan

- **5 eta 6.mailako ikasleen % 23,74k mugikor propioa du;** mutilen % 28,57k eta nesken % 19k.
- **% 41,41ek familiako kide baten mugikorra erabiltzen du.**
- Mugikorrarekin gehien egiten dituzten hiru ekintzak: musika entzutea, jolastea eta deiak egitea.
- **% 76,74k, mugikorra erabiltzeko arauak ezarrita dituzte.**

• Substantziekin lehenengo kontaktuak

Edari energetikoak dira lehenengo probatzen den substantzia (**11 urte**), ondoren **alkohola (12 urte)**, gero **baperra (13 urte)**, jarraian **tabakoa (13 urte)** eta **kalamua (14 urte)**.

Genero aldetik mutilak dira lehenengo hasten direnak probatzen, desberdintasun handienak baperrean (neskak 9 hilabete beranduago), edari energetikoetan (neskak 8 hilabete beranduago) eta kalamuan (neskak 7 hilabete beranduago) emanik.

Probatzen hasteko arrazoien artean, **lagunen eragina eta ondoren kuriositatea edo jakin-mina aurkitzen dira.**

• Substantzien kontsumoak

Mutilak neskak baino lehenago hasten dira substantziak probatzen. Desberdintasun handienak edari energetikoetan eta kalamuan egonik.

- **Edari energetikoak: nesken** gehiengoak probatu bakarrik egin ditu, **% 16,10a** izanik kontsumitzailea. **Mutilen** kasuan **% 40,78ak** kontsumitzen ditu.

- **Alkohola:** gehien probatu den bigarren substantzia. **Neska eta mutilen kontsumitzaile tasak antzekoak dira; mutilen % 38a eta nesken % 33a.** Alkohola probatu dutenak gehiago dira kontsumitzen dutenak baino, eta hilabetero, astero edo sarritan kontsumitzen dutenak gehienbat mutilak dira. Alkohola kontsumitzen dutenek taberna edo txosnetan lortzen dutela diote eta kontsumitzeko arrazoi nagusiak ondo pasatzeko eta topera dibertitzeko dira.

- **Baperra: mutil eta nesken % 20-26k probatu dituzte** eta mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen dituzte.
- **Tabakoa: baperra baino zertxobait gutxiago dira probatu dutenak eta baperra bezala mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen dute.** Kasu honetan sarritan edo ohiz kontsumitzen duten mutilen tasak altuak dira; baperra probatu dutenen mutilen artean, % 4,69k ohiz erretzen du eta tabakoa aldiz, probatu duten % 39,02k.
- **Kalamua:** Neska eta mutilen artean desberdintasun handia dago mutilen tasak neskena bikoiztuz. **Ohiko kontsumoak mutiletan nesketan baino askoz altuagoak dira; mutilen % 11,48k eta nesken % 4,14k kontsumitzen dute.**

• Eskuragarritasuna eta normalizazioa

Eskuragarri dituzten substantzien artean alkohola aurkitzen da lehenengoa eta ondoren **baperra**. **Substantzia ilegalen artean kalamua eta arnasgarriak** dira eskuragarrien dituztenak. **Substantziarik gabeko ekintzen artean ordea, pornografia identifikatu dute eskuragarrien dauketen ekintza bezala**, kirol apustueta makinak eta txanpon makinak direlarik ondorengo ekintza erabilienak.

Lehen Hezkuntzako 3.zikloko ikasleen % 57k etorkizunean alkohola edango duela edo agian edango duela dio. Hauen ustez, neurritz kontsumitzen badira substantziak ez dira kaltegarriak.

Diagnostiko honetan, nerabe eta gazteei beraien errealitateaz galdetuz gain, **bi udalerrietako eragileekin foroak gauzatu ziren eta herritarrei osasunaren sustapena eta prebentzioaren inguruko beraien pertzepzioa zein zen ezagutzeko galdetegi bat ere burutu zen.** Iturri guztietako informazioa aztertu ondoren hauek izan dira jasotako ondorio orokorrak:

• Eragile eta herritarren pertzepzioak

- **Sexualitatean, ikasleekin norberaren desioak adieraztearen lanketaren beharra ikusten da.** Ildo honetatik ere, on-lineko jazarpen edo mehatxu egoerak daudela ikusita, hau ere jorratu beharra dago.
- **Sexualitatea eta pertsona arteko harremanak DBHko lehenengo zikloan lantzeko beharra** dago eta **gizarte presioa, gorputzaren irudiarekin lotutako presioa (sare sozialak) bigarren zikloan.**
- **Heziketa emozionala indartzeko beharra EKKO bezalako programekin** eta emozioak kudeatzeko baliabideak eskainiz.
- **Espazio seguruak sustatzea**, nerabe eta gazteek beren emozioak partekatu eta landu ahal izateko.

- **Espazio seguruak sustatzea**, nerabe eta gazteek beren emozioak partekatu eta landu ahal izateko.
- **Gazteei udalerrian protagonismo eta ahots gehiago ematea.**
- **Osasun zerbitzu publikoan pazienteen arreta bizkortzea** eta kontsulta denbora luzatzea. Bestalde, **buruko nahasmenduren bat duten pertsonak artatzeko baliabideak areagotu.**
- **Kontsumoen adina atzeratzearen beharra dagoela identifikatu ondoren, osasunaren sustapena eta prebentzio programak aurreratzearen beharra ikusi da.** Programa hauek genero ikuspegia kontutan izatea.
- **Substantzia gabeko kontsumoetan mutil gazteekin jokia eta apustuak lantzea eta neskekin sare sozialak.**
- Kontsumoak oso normalizatuta daudela eta herri oso permisiboak direla ikusita, **lanketan integral baten beharra dago familia, ostalaritza eta udalaren artean koordinatuz.**
- **Komunitatearen inplikazioa indartu** behar da prebentzio gaietan, kontzientziazio eta parte-hartze aktiboaren bidez.
- **Eskuragarritasuna murrizteko neurriak** hartu behar dira batez ere adin txikikoei begira.
- **Udal zerbitzuen eta udal teknikoaren artean koordinazioa** egon behar da eta gazteen osasun integrala hobetzeko eta ingurune seguruago eta osasuntsuago bat sustatzeko ikuspegi komunitario eta koordinatu baten beharra azpimarratzen da.

4.3 Esku-hartzeko lehentasunezko espazioak eta kolektiboak

Plan honen helburu nagusia da adikzioen arazoari ikuspegi integratu eta orokor batetik heltzea, Aretxabaleta eta Eskoriatzako biztanleen artean osasuna sustatuz eta adikzioen prebentzioa modu eraginkorrean bultzatuz. **Bereziki arreta berezia eskainiko zaie kolektibo zaurgarrienei, hala nola haurrei, nerabeei eta gazteei.** Horretarako, prebentzio-programa unibertsalak, selektiboak eta adieraziak garatuko dira, bizitzaren hainbat eremutan aplikatuz: hezkuntza-sistemaren barruan, familia-ingurunean, aisialdian eta jai-giroan eta osasun sisteman.

Beraz, esku-hartzea helburu duten espazio eta kolektibo nagusiak honako hauek dira:


Espazioak	Lehentasunezko kolektiboak	Eremuak
- Ikastetxeak - Osasun arreta - Heziketa ez formaleko espazioak	- Haur eta nerabeak - Gazteak - Heldu kolektibo zaurgarriak	1. Hezkuntza eremua 2. Familia eremua 3. Komunitate eremuan

5. Planaren helburuak, ardatzak eta ekintzak

Aretxabaleta eta Eskoriatzako haur eta nerabeen ongizate emozionalaren inguruko diagnostikotik abiatuta, eta eragile desberdinen parte-hartzearekin egindako lanketaren ondoren, **ongizate emozionalaren sustapena eta adikzioen prebentziorako plan honek errealitatearen behar zehatzei erantzun nahi die, ikuspegi komunitario, integratu eta parte-hartzaile batetik.**

Plan honek substantzien erabilerari zein jokabide adiktiboari heltzen die, haur eta nerabeen ongizate emozionalaren sustapena ardatz hartuta. Diagnostikotik ateratako ondorioek agerian utzi dute prebentzioa goiztiarra izatearen eta ikuspegi integral batetik garatzearen beharra, non osasun mentala, generoa, aisialdia, parte-hartzea eta komunitatearen inplikazioa uztartzen diren.

Ondorengo atalean, lehentasunezko ildo estrategikoak jasotzen dira, bakoitzari helburu zehatzak eta ekintza proposamenak atxikituta. Helburua eraginkortasunez eta koordinazioan lan egitea da, haurren eta nerabeen bizi kalitatea eta ongizate emozionala hobetzeko, eta aldi berean, adikzioen prebentzioan eragiteko.



1. HELBURUA: PORTAERA OSASUNGARRIAK SUSTATUKO DITUZTEN ETA ADIKZIOA SORTZEN DUTEN SUBSTANTZIEN KONTSUMOA ETA JOKABIDEAK DESNORMALIZATZEN LAGUNDUKO DUTEN INGURUNEAK AKTIBATZEA

1. Ingurune osasungarriak garatzeko egiturazko neurriak bultzatzea

2 ekintza

2. Eskaintza murriztearekin eta kontrolatzearekin erlazionatutako esku-hartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bidez

4 ekintza

3. Araudiaren aplikazio eraginkorragorantz aurrera egitea

ekintza 1

2. HELBURUA: OSASUNA ETA PREBENTZIOA SUSTATZEKO PROGRAMAK INDARTZEA ETA HOBETZEA

1. HAURTZAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea

2 ekintza

2. NERABEZARO ETA GAZTAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea

6 ekintza

3. HELDUAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea

2 ekintza

3. HELBURUA: GIZARTERATZEKO TRATAMENDU-, ASISTENTZIA- ETA LAGUNTZA-ZERBITZUAK INDARTZEA ETA HOBETZEA

1. Arreta integrala eta jarraitua bermatzea

ekintza 1

2. Asistentzia eta gizarte premia espezifikoak dituzten pertsonei ibilbideak egokitzea

2 ekintza

3. Sareen arteko koordinazioa indartzea

2 ekintza

4. HELBURUA: ADIKZIOEN ARLOKO EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA GARATZEA ETA ZABALTZEA

1. Informazioa sistematizatzea eta joerak aztertzea

2 ekintza

2. Profesionalen prestakuntza-sistema garatzea eta sendotzea

3 ekintza

3. Ezagutza soziala zabaltzea eta sentsibilizazioa sustatzea adikzioen inguruan

2 ekintza

5. HELBURUA: SEKTORE ARTEKO EKINTZA ERAGINKORRAGOA FINKATZEA

1. Koordinazio egiturak sendotzea

2 ekintza

2. Esku hartze bateratuak diseinatzea eta ezartzea

ekintza 1

3. Informazioa eta ezagutza partekatzea

ekintza 1

4. Jarraipena eta ebaluazioa sistematizatzea

ekintza 1

1.go HELBURUA: PORTAERA OSASUNGARRIAK SUSTATUKO DITUZTEN ETA ADIKZIOA SORTZEN DUTEN SUBSTANTZIEN KONTSUMOA ETA JOKABIDEAK DESNORMALIZATZEN LAGUNDUKO DUTEN INGURUNEAK AKTIBATZEA

Diagnostikotik ateratako ondorio nagusietako bat gazteen artean kontsumoa adin goiztiarretan hasten dela da, baita ere udalerri bietan kontsumo horien normalizazioa nabarmena dela. Testuinguru hori kontuan hartuta, hauek dira esku-hartze proposamenenak.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Espazio seguruak eta aisialdi ekintza osasungarriak sustatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen parte-hartze aktiboa bultzatzea erabaki eta programaketan.
- Komunitatearen permisibitate-maila murriztea eta jarrera arduratsuagoak sustatzea.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
1. Ingurune osasungarriak garatzeko egiturazko neurriak bultzatzea	1. Aisia aukera osasuntsuak sustatu: - Haurrentzako eta nerabeentzako espazio fisiko seguruak sortu, hala nola, ludoteka eta gaztelekua indartu. - Emozioen lanketa eta adierazpenerako espazio eta ekimen berriak garatzea ludotekan eta gaztelekuan.					Gazteria	- Haurren eta nerabeen aisialdi osasuntsurako zerbitzuen erabiltzaile kopuruak. - Ingurune seguruak eta tratu onen planifikazioaren garapen maila. - Planifikazioaren garapen maila. - Emozioen inguruan egindako lanketa kopurua.	- Jardueren erregistroak, udal txostenak. - Bilera aktak. - Parte-hartzaileen datuak: kopuruak. - Profesionalen eguneroko erregistroak eta memoria-txostenak. - Asebetetze maila neurtzeko erabilitako inkestak. - Izen emateak.
	Integrazioa eta aukera berdintasunak erraztu (eskolaz kanpoko ekintzetako dirulaguntzak...).					Gazteria Euskara (Eskoriatza)	- Diru laguntzen deialdia eta aurrekontua, eskera eta onartutako kopurua. - Emozioen inguruan egindako lanketa kopurua.	
	Herriko elkarte eta eragileekin espazio eta harreman seguruak.					Gazteria	Herriko elkarteekin egindako bilerak eta elkarlan ekintzak (Formazio saioak).	
	2. Haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatu, partaidetza egiturak sortzen hasi, alde batetik, beraiei zuzendutako ekintza, programa eta zerbitzuen diseinuan eragile aktibo izateko, besteak beste, aisia eskaintza diseinatzerako orduan, eta bestetik espazioen funtzionamendua ebaluatzeko.					Gazteria	- Parte-hartze egituretan gazteen parte-hartze aktiboa (parte-hartzaileen % eta proposatutako hobekuntza kopurua). - Aisialdiko eskaintzan egindak aldaketak gazteen proposamenen ondorioz. - Harreman seguru eta inklusiboak sustatzen dituzten ekimenen eragina gazteen pertzepzioan (inkesta baten bitartez). - Gazteen partaidetza foroak sortzeko urratsak, ekintza kopuruak eta partaide kopurua.	

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
2. Eskaintza murriztearekin eta kontrolatzearekin erlazionatutako esku-hartzeak indartzea, inplikaturako eragileen arteko koordinazio hobearen bidez	3. Kerik gabeko guneak eratu: Nazioarteko Tabako Gabeko Eguna baliatuz, kerik gabeko guneen inguruko sentsibilizazio kanpainarekin bat egin.					Prebentzioa	Kerik gabeko guneen inguruko sentsibilizazio kanpaina kopurua.	- Kanpainen eta formazioen dokumentazioa desberdinak: materialak, kartelak... - Kanpainen eta formazioen balorazio ebaluazio txostenak. - Izen ematen duten partaideen zerrendak. - Asebetetze maila neurtzeko erabilitako inkestak.
	4. Alkohol kontsumoa desnormalizatzeko ekintzak.					Prebentzioa	Alkohola desnormalizatzeko egindako ekintza kopurua.	
	5. Eragileentzako prestakuntza. Haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalentzako formazio eta sentsibilizazio saioak (Lanbide Eskola, EKE eta UDA).					Prebentzioa	- Eragileei zuzendutako formazio eta sentsibilizazio saio kopurua. - Parte hartzaileak.	
	6. Komunitatearen permisibitatea murrizteko eta kontzientziazioa pizteko sentsibilizazioa eta formazio ekintzak: ostalariekin, guraso elkarteekin eta beste eragile esanguratsuekin sentsibilizazio eta formazio-ekintzak garatu, adikzioarekin lotutako jokabideak desnormalizatzeko, ingurune osasungarriak indartzeko eta ardura partekatua sustatzeko. Araudia betearazi. Ostalaritza zerbitzuan eta dendetan alkohol hornitzearen araudia betearazi.					Prebentzioa	- Egindako ekintzen asebetetze maila. - Permisibitatea murrizteko egindako ekintzak zeintzuk izan diren eta zenbat egin diren.	

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
3. Araudiaren aplikazio eraginkorragorantz aurrera egitea	7. Zehapenen ordezeko neurriak ezartzeko programak aztertu eta hobetu: -Ikastetxeetan dagoen programa. -Herritarrei zuzendutako programa.					Prebentzioa	- Partaide kopurua. - Hobekuntza kopurua. - Isunen ordezeko neurrien parte hartzen duten eragileen lankidetzsa-saio kopurua. - Hezkuntza komunitatearekin izandako lankidetzsa-saio kopurua. - Zehapenen ordezeko neurrien bidez esku-hartzea jaso duten gazteen kopurua. - Programaren onarpen eta eraginkortasun maila (eragile desberdinekin egindako ebaluazioaren bidez). - Ikastetxeetako diziiplina-egoeretan neurri hezigarriak lehenestea (% aplikazio).	- Ikastetxeetako erregistroak. - Elkarrizketak eta behaketa sistemikoa. - Eragileen arteko bileren aktak. - Programen txostenak.

2. HELBURUA: OSASUNA ETA PREBENTZIOA SUSTATZEKO PROGRAMAK INDARTZEA ETA HOBETZEA

Beste ondorio nagusi bat prebentzioaren lana aurreratzea izan da eta baita ere, Sexu-hezkuntzako programa DBHko 1.go zikloan lantzea. Hau kontutan izanda eta udalerrietan orain arte egon diren proiektuak aintzat hartuta hurrengo ekintzak lehenesten dira.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Haurren eta nerabeen ongizate emozionala indartzea eta garapen osasuntsua sustatzea.
- Substantzien kontsumoaren hasiera atzeratzea eta mendekotasuna eragin dezaketen adikzioen prebalentzia murriztea.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
1. HAURTZAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea	8. Haurren ongizate emozionala sendotzeko programa goiztiar bat sortzeko beharra aztertu Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera (8-10 urte).					Prebentzioa Gazteria	• Programaren justifikazio edo funtsatzea adostu da. • Garatutako programa eta saio kopuruak. • Parte hartu duten ikasle kopurua. • Programarekiko asebetetze-maila (irakasle-ikasle).	• Programaren deskribapena. • Erbilitako materialak. • Behaketa sistematikoa. • Egindako elkarriketak edo eta bilerak. • Irakasle eta hezitzaileen txostenak. • Asebetetze maila neurtzen duten inkestak. • Balorazio txostenak.
	9. EKKO programarekin jarraitu LH 5 eta 6. mailetan gizarte trebetasunak eta prebentzioaren oinarriak lantzeko.					Gazteria Prebentzioa		
2. NERABEZARO ETA GAZTAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea	10. Ongizate emozionaleko eta gizarte trebetasunak lantzeko prebentzio programa, EKKO, 12-16 urte bitartera luzatzea.					Gazteria Prebentzioa	• Programaren justifikazio edo funtsatzea adostu da. • Garatutako programa eta saio kopurua.	• Beharren diagnostikoa. • Programaren deskribapena. • Erabilitako materialak.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
	11. Ikastetxeetan eta udalerrian abian dauden prebentzio-programen azterketa eta balorazioa sistematizatzea, haur eta nerabeen partaidetza txertatuz.					Prebentzioa Gazteria	- Programak aztertzeko egindako bilera eta elkarriketa kopurua. - Landutako programa zeintzuk izan diren. - Txertatutako gai berriak.	- Behaketa sistematikoa. - Egindako elkarriketak edo eta bilerak. - Irakasle eta hezitzaileen txostenak. - Asebetetze maila neurtzen duten inkestak. - Balorazio txostenak.
	12. Prebentzio- programetan osasun mentalaren dimentsioa txertatu modu zehatzean (antsietatea, estresa, suizidioa...).					Prebentzioa Gazteria	Programaketan sartu diren berrikuntza kopuruak.	
	13. Sexu-heziketa programak aztertzea, pedagogia feministatik birdefinitzea eta emaginaren partaidetza txertatzea.					Berdintasun Teknikaria	Programaren asebetetze maila (ikasleena eta irakasleena).	
	14. Lanbide Heziketako ikasleentzat kontsumoen arriskuei buruzko programa espezifikoekin jarraitu.					Prebentzioa	Programaren asebetetze maila (ikasleena eta irakasleena).	
	15. Kale-heziketa programa indartu.					Gizarte Zerbitzuak	Kale-heziketako ordu gehigarriak (% aurreko urtearekiko).	

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
3. HELDUAROAN osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa indartzea	16. Osasun zerbitzuekin lankidetzan, substantzien kontsumoarekin (alkohola eta antsiolitikoak) edo bestelako arrisku jokabideekin (elikadura nahasmena) erlazionatutako arrisku egoeran dauden helduei zuzendutako eskuhartze laburrak edo motibazio elkarrizketak diseinatzea eta bultzatzea.					Prebentzioa	- Esku-hartze kopurua: zenbat helduri egin zaizkien elkarrizketa edo saio laburrak. - Parte-hartzaileen profilak: adina, sexua, arrisku-jokabidea motaren arabera sailkatuta. - Osasun zerbitzuekin koordinatutako ekintzen kopurua eta kalitatea (adib. protokoloak, ekintza bateratuak). - Programetan parte hartu duten.	- Elkarrizketa erdi egituratuak zerbitzu profesionalekin. - Erregistro partaidetza. - Osasun zentroen txostenak; koordinazio bileretan jasotako datuak.
	17. Osasun zerbitzuekin koordinatuta psikofarmakoen preskripzioari eta kontsumoari buruzko informazio eta sentsibilizazio programak adostea edo martxan jartzea emakumeen eta kalteberatasun handiagoan arreta berezia jarriz.							

3. HELBURUA: GIZARTERATZEKO TRATAMENDU-, ASISTENTZIA- ETA LAGUNTZA-ZERBITZUAK INDARTZEA ETA HOBETZEA

Adikzioen tratamendu eta laguntza zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna handitzea da helburu nagusia, pertsona guztien beharretara egokituta eta elkarlanean jardunez. Horretarako, koordinazio egokia eta iraunkorra bultzatzea ezinbestekoa da, batez ere gazteei zuzendutako arreta psiko-hezitzailea sistematizatuz eta indartuz. Era berean, arreta psikologikoaren eskaria, erabilgarritasuna eta eraginkortasuna etengabe aztertuz eta egokituz, zerbitzuen erantzunkizuna eta eraginkortasuna hobetzea bilatzen da.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Adikzioen tratamendu eta laguntza zerbitzuen arteko koordinazioa sendotzea.
- Gazteei zuzendutako arreta psiko-hezitzailea garatzea eta sistematizatzea.
- Arreta psikologikoaren eskaria, erabilgarritasuna eta eraginkortasuna aztertzea eta egokitzea.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
1. Arreta integrala eta jarraitua bermatzea	18. Udalerrietako arreta psikologikoa aztertzea (publikoa eta komunitarioa), eskariari eta eraginkortasunari buruzko datuak jasotzeko. Eta, aztertutakoaren araberako neurriak hartzea.					Prebentzioa	• Dokumentazio desberdinen azterketa. • Izandako bilera desberdinak. • Baliabideen mota eta sailkapena. • Diru-laguntzen eskaerak.	
	19. Nerabeei eta gazteei zuzendutako baliabide psiko-hezitzaileak aztertu, beste udalerri edo eskualdeetako praktika onak aztertuz eta herriaren behar zehatzak identifikatuz.					Gazteria		
2. Asistentzia eta gizarte premia espezifikoak dituzten pertsonei ibilbideak egokitu	20. Tratamenduetarako dirulaguntzak ematen jarraitu.					Prebentzioa		

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
3. Sareen arteko koordinazioa indartzea	21. Herriko prebentzio-programa guztiak zerrendatu eta baloratu. 22. Udaleko sail desberdinek ikastetxeei eta guraso elkarteei eskaintzen dizkien jarduera eta ekintza guztiak identifikatu eta zerrendatu.					Prebentzioa Gazteria	- Koordinazio-bilera kopurua eta maiztasuna. - Parte hartu duten baliabide eta profesional kopurua. - Herriko prebentzio-programa guztien zerrenda.	Errekurtsoen erregistroa.

4. HELBURUA: ADIKZIOEN ARLOKO EZAGUTZA ETA BERRIKUNTZA GARATZEA ETA ZABALTZEA

Adikzioen arloko ezagutza eta berrikuntza garatzea eta zabaltzea funtsezko helburua da, etengabe aldatzen eta konplexutzen ari den eremu honetan eraginkortasunez jarduteko. Lanaren norabidea argi definituz eta jarduera praktiko zehatzetan oinarrituz, estrategia integrala eta koordinatua garatu ahal izango da, prebentzioan, tratamenduan eta ingurune osasungarriak sustatzean arreta jarrita, komunitatearen eta eragileen arteko lankidetzaren eta parte-hartzearen bultzatuz.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Adikzioen inguruko egoerari eta joerei buruzko informazio fidagarria eta eguneratua sistematikoki jasotzea.
- Gazteen gaitasun psikosozialen garapena eta prebentzio faktoreen azterketa sustatzea.
- Udal mailan adikzioen inguruan egiten den lana ikusgai egin eta ezagutza soziala zabaltzea.
- Herritarrei eta eragileei baliabide publikoen inguruko informazioa eskuragarri eta ulergarri egitea.
- Adikzioen arloan diharduten profesionalen etengabeko prestakuntza eskaintzea eta profesionalizazioa indartzea.
- Udal langileen gaitasunak sendotzea osasunaren sustapenean eta prebentzioaren ikuspegitik.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
1. Informazioa sistematizatzea eta joerak aztertzea	23. Ikasleei kontsumo inkestak urtero pasatu, kontsumoaren jarraipena egiteko datuak modu sistematikoan jasotzeko.					Prebentzioa	• Prebentzio proiektuan inkesta pasatu den ikastetxeen eta partehartzaile kopurua. • Koordinazio-saio kopurua eta parte hartu duten zerbitzu eta profesional kopurua. • Kontsumo joeren datu-txosten eguneratua. • Nerabeen gaitasun psikosozialen mailaren ebaluazioa. • Gaitasunen araberako esku-hartzeen egokitzapena.	• Kontsumo inkestak. • Psikometria bidezko eskalak. • Txostenak.
	24. Ikasleei erabakiak hartzearen inguruko eskalak pasatu, nerabeen gaitasun psikosozialen inguruko datu kuantitatiboak ortzeko.					Prebentzioa		

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
2. Profesionalen prestakuntza-sistema garatzea eta sendotzea	25. Lanketa komunitarioa sustatu. Udal zerbitzuen eta teknikarien arteko koordinazioa indartzeko bideak sortu, ikuspegi komunitario eta integratutik gazteen osasun integrala eta ingurune seguruagoak sustatzeko.					Prebentzioa Gazteria	- Prestakuntza jaso duten udal langileen kopurua eta emandako saio kopurua. - Prestakuntzaren edukiaren erabilgarritasunaren balorazioa.	- Egindako eskariak. - Gogobetetze inkestak. - Prestakuntzan balorazio txostenak.
	26. Adikzioen alorrea lan egiten duten profesionali etengabeko prestakuntza indartu. Profesionalen eguneratzea eta gaitasun espezifikoen hobekuntza.					Prebentzioa		
	27. Prebentzioarekin lotura duten langileei formazioa eskaintzea osasunaren sustapena eta prebentzioan.							
3. Ezagutza soziala zabaltzea eta sentsibilizazioa sustatzea adikzioen inguruan	28. Adikzioen inguruan udalerrietan egiten den lanaren hedapena hobetu, herritarrek eta eragileak informatuta izateko.					Prebentzioa	- Zabaldutako komunikazio-ekintza kopurua. - Hedabideeta egindako agerpen kopurua. - Zerbitzua ezagutarazteko egindako ekintza kopurua.	Komunikazio kanpainen erregistroa.
	29. Prebentzio zerbitzua ikusgai egin. Zerbitzuaren presentzia soziala handitu eta hurbiltasuna bultzatzeko bideak sortu.					Prebentzioa	- Zerbitzuan parte hartu duten herritarren kopurua. - Prebentzio Zerbitzuak zein ekintzetan parte hartu duen.	Erregistroa.

5. HELBURUA: SEKTOREEN ARTEKO EKINTZA ERAGINKORRAGOA FINKATZEA

Udal tekniko eta hezkuntza eta osasun eragileen artean koordinazioa egon behar da eta gazteen osasun integrala hobetzeko eta ingurune seguruago eta osasuntsuago bat sustatzeko ikuspegi komunitario eta koordinatu baten beharra azpimarratzen da, beraz:

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

- Lanketa komunitarioa sustatzea.
- Adikzioen arloko eragileen arteko koordinazio-egiturak finkatzea eta sistematizatzea.
- Prebentzio, arreta eta gizarteratze eremuetan sektore arteko esku-hartze bateratuak garatzea.
- Informazio partekatua, protokolo komunak eta diziplina arteko harremanak sendotzea.
- Planaren jarraipena eta ebaluazioa sistematizatzea eta egitura iraunkor batetik gauzatzea.

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
1. Koordinazio egiturak sendotzea	30. Ongizate emozionalaren mahaiarekin jarraitu, eragile desberdinen arteko topagunea definitu, funtzioak eta egitekoak zehaztu.					Prebentzioa Gazteria	• Organo eraketa eta funtzionamendua. • Ezarritako koordinazio eredua. • Diseinatu diren protokolo kopurua. • Parte hartu duten teknikari, zerbitzu eta erakunde kopurua.	• Bileren aktak. • Parte-hartzaileen balorazioak. • Parte-hartze mailaren jarraipena. • Protokolo dokumentua.
	31. Prebentzio-zerbitzuaren eta anbulatorioren arteko koordinazio-eredu bat ezarri adikzio kasuetarako (alkohola, sendagaiak, ludopatiak...)					Prebentzioa		
2. Esku-hartze bateratuak diseinatzea eta ezartzea	32. Arlo ezberdinetako zerbitzu teknikoen arteko lan-protokoloak garatu. Zerbitzu arteko esku-hartze bateratuak koordinatzeko jarraibide teknikoak sortu.					Prebentzioa		

Jarduketa-ildoak	Ekintzak	Urtea				Arduradunak	Adierazleak	Datuen bilketarako tresnak
		2026	2027	2028	2029			
3. Informazioa eta ezagutza partekatzea	33. Informazioaren trukea errazteko sistema komun bat sortu. Baliabide eta datuen trukea sistematizatzeko tresnak definitu eta ezarri.					Prebentzioa	- Sortutako sistema edo tresna kopurua. - Sistema horietan parte hartzen duten zerbitzu kopurua.	Erabiltzaileen erabilgarritasun balorazioak.
4. Jarraipena eta ebaluazioa sistematizatzea	34. Planaren jarraipena eta ebaluazioa finkatu. Plana modu dinamikoan garatzen jarraitzeko eta etengabeko hobekuntzak integratzeko, jarraipen eta ebaluazio-sistema egonkorak ezarriko dira.					Prebentzioa	- Ezartzen diren jarraipen adierazleen kopurua. - Planaren eguneratze eta egokitze maila. - Etengabeko hobekuntzen integrazioa plangintzan.	- Urteko ebaluazio txostenak. - Urteko plangintza eta memoria. - Helburuen lorpen-mailei buruzko barne-txostenak. - Programa desberdinen balorazio txostenak. - Arduradunen eta partaideen autoebaluazioak.

6. Planaren jarraipena

Urteko jardueren plangintza eta etengabeko ebaluazioa sistematizatzeko, **bi-urteroko Ekintza Plana garatuko da**. Plan horrek bi urteko epean gauzatuko diren ekintzak bilduko ditu, bakoitzari dagokion adierazle-sistemarekin batera, ebaluazio jarraitu eta egituratu bat ahalbidetuz.

Urtero, ekintza horien exekuzio-mailari eta eraginkortasunari buruzko txosten teknikoak eta memoria dokumentuak egingo dira, lortutako emaitzak eta identifikatutako erronkak jasotzeko, eta, hala badagokio, egokitzapen-proposamenak egiteko.

Planaren indarraldia amaitzean, amaierako ebaluazio integrala gauzatuko da. Ebaluazio horren bidez baloratuko da planak ezarritako helburu estrategikoak lortzeko izan duen eraginkortasuna, eta horren emaitzek hurrengo planaren diseinua orientatzeko oinarri teknikoak ezartzeko balioko dute.